EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritza

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación
Dirección de Centros y Planificación

# OHARRA – **HAUSPOA**

Pasa den 2020ko apirilaren 17an argitaratu zen Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpena, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan barne-antolamendua berriztatzeko proiektuan parte hartzeko aukera eskaintzen duena (HAUSPOA).

Deialdi horren eremuan, pare bat ohar **orain arte Hauspoa proiektuan parte hartzen ari diren ikastetxeei** buruz:

1) Deialdiko 5.6. atalean adierazten da ze dokumentazio **aurkeztu behar duten orain arte Hauspoa proiektuan parte hartu** eta **Ikuskaritzaren ebaluazio positiboa** jaso duten ikastetxeek.

   Une honetan bizi dugun egoerak dakartzan mugak aintzat hartuta, kontuan hartuko dena izango da Ikuskaritzak **2018-2019** ikasturtean egindako ebaluazioa. Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritza honek Hezkuntza Ikuskaritzak 2018-2019 ikasturtean egindako ebaluazioaren emaitzak aztertu ostean jakinarazten du **ikastetxe guztiek izan zutela ebaluazio positiboa** 2018-2019 ikasturtean.

2) Hauspoan parte hartzen ari diren ikastetxeek **memoria labur** bar egin behar dute ikasturte amaieran. Aurtengo egoera bereziari erreparatuz, memoria hori aurkezteko epea irailaren 30era arte luzatzea erabaki da.

Deialdian azaltzen diren gainontzeko alderdi guztiak bertan adierazi bezala mantentzen dira.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 4a

Eugenio Jiménez Ibáñez
Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaria

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 66 – E-mail: huiscesc@euskadi.eus